V. KAPITULUA
ARAU ESPEZIFIKOAK

22. artikulua.– Jarduera etetea edo lantokia ixtea.

Laneko segurtasunari eta higiene eta osasunari dagozkien arau-hausteetan zirkunstantzia bereziki larriak gertatzen badira, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Ikuskaritzaren Burutzaren arduradunak jardun egokiak egingo ditu, aldi baterako etetea edo establezimendua ixtea Jaurlaritzaren Kontseilura helarazteko, hark onar dezan, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 53. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

23. artikulua.– Kontratatzeko eskumenaren mugak.

Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, segurtasun- eta higiene-neurriak ez betetzeagatik langileen eskubideen aurkako delituengatiko epai irmoa jaso duten pertsonek ezin dute kontraturik egin Legearen aplikazio-eremu subjektiboaren eraginpeko erakunde eta entitateekin, ezta Gizarte Arloko Arau-hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen Testu Bateginaren arabera laneko segurtasun eta osasunaren arloko oso arau-hauste larria egin izanagatik zehapen irmoa jaso duten pertsonek ere.

CAPÍTULO V
NORMAS ESPECÍFICAS

Artículo 22.– Suspensión de actividad o cierre de centro de trabajo.

Cuando concurran circunstancias de excepcional gravedad en las infracciones referidas a la seguridad e higiene y salud laborales la o el responsable de Jefatura de la Inspección de Seguridad y Salud Laborales llevará a cabo las actuaciones procedentes, al objeto de que se someta la suspensión temporal o el cierre del establecimiento a la aprobación del Consejo de Gobierno, de conformidad con lo previsto en el artículo 53 de la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales.

Artículo 23.– Limitaciones a la facultad de contratar.

De conformidad con lo establecido en la Ley 30/2007, de 30 octubre, de Contratos del Sector Público, no pueden contratar con los entes, organismos y entidades que forman parte del ámbito subjetivo de aplicación de la referida Ley, las personas que hayan sido condenadas por sentencia firme por delitos contra los derechos de los trabajadores por omisión de medidas de seguridad e higiene, así como las personas sancionadas, con carácter firme, por infracción muy grave en materia de seguridad y salud en el trabajo de conformidad con lo dispuesto en el Texto Refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social.

1051

20/2008 DEKRETUA urtarrilaren 29koa, Euskal Administrazio Publikoen eremuan lan-arriskuen prebentzio-arloko arauak ez betetzeagatiko neurri zuzentzaileak ezartzeko prozeduraren Erregelamendua onartzen duena.

Dekretu honek honako xede hau dauka: Euskal Administrazio Publikoen eremuan lan-arriskuen prebentzio-arloan eginiko arau-hausteengatiko neurri zuzentzaileak hartzeko prozedurari buruzko Erregelamendua onartzea.

Eusko Jaurlaritzak borondate irmoa adierazi du EAEko lan-ezbeharren tasaren murrizketa sustatzeko ekintzak gidatzeko, eta Laneko Segurtasun eta Osasunerako Ikuskaritza Sistema borondate horren adierazgarria da.

1051

DECRETO 20/2008, de 29 de enero, por el que se aprueba el Reglamento del procedimiento para la imposición de medidas correctoras por incumplimientos en materia de prevención de riesgos laborales en el ámbito de las Administraciones Públicas Vascas.

El presente Decreto tiene por objeto aprobar el Reglamento sobre procedimiento para la imposición de medidas correctoras por infracciones en materia de prevención de riesgos laborales en el ámbito de las Administraciones Públicas Vascas.

El Sistema de Inspección de Seguridad y Salud Laborales es expresión de la decidida voluntad del Gobierno Vasco por liderar las acciones que promuevan la disminución de la siniestralidad laboral en Euskadi.

Osalan Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen jardunak indartzea lehentasuna da Eusko Jaurlaritzarentzat, prebentzioari, prestakuntzari eta bereziki laneko segurtasun- eta osasun-araudia betetzearen ikuskatze-eginkizunei dagokienez.

Ikuskatze-eginkizun horiek Osalaneko teknikarien bitartez gauzatzen dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen esklusiboko sektore-eremu guztietan garatzen dira, Euskal Administrazio Publikoen eremuan, esaterako.

Erregelamenduan Euskal Autonomia Erkidegoko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Ikuskaritza Sistemaren eginkizunak ezarri ondoren, jarraitu beharreko prozeduraren erregelamendua garatzeko garaia iritsi da, Euskal Administrazio Publikoen eremuan neurri zuzentzaileak ezartzeko.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren (hemendik aurrera, EHAE) 10. 4 artikuluak gure Autonomia Erkidegoari eskumen esklusiboa esleitzen dio tokiko araubidearen eta EAEko funtzionarioen estatutuen arloetan. Gainera, EHAEko 10.2 artikuluak autogobernu-erakundeen antolaketaren, araubidearen eta jardueraren eskumen esklusiboa ematen dio, eta EHAEko 10.6 artikuluak, berriz, eskumen esklusiboa ematen dio Euskal Autonomia Erkidegoak emandako zuzenbidearen berezitasunen eta haren antolaketa bereziaren haritik datozen administrazioko prozedura-arauei dagokienez. Azkenik, eta ikuskatzea lan-legeria betearaztearen eremuan bakarrik kokatzen denez, EHAEko 12.2 artikulua ere hartu behar da kontuan. Horren arabera, Autonomia Erkidegoak du Estatuaren lan-legeria betearazteko eskumena.

Abenduaren 21eko 7/1993 Legearen azken xedapenetako hirugarrenak agintzen duenez, Jaurlaritzak beharrezko xedapenak eman behar ditu gizarte-arloko arau-hauste eta zehapenei buruzko legerian aurreikusitako zehapen-prozedura Euskal Administrazio Publikoen eremura egokitzeko.

Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 10eko 31/1995 Legea funtsezko erreferentea da lan-baldintzen hobekuntza eta laneko osasunaren eta segurtasunaren babesa sustatzeari dagokionez, eta Administrazio Publikoen zerbitzuan dauden langileei aplikatu behar zaie. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Ikuskaritza Sistema oinarritzat hartuta, erregelamendu honek Euskal Administrazio Publikoen eremuan lan-arriskuen prebentzio-arloan eginiko arau-hausteengatiko zehapenak ezartzeko prozedura arautzen du.

Constituye una prioridad de este Gobierno reforzar las actuaciones del Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea, Osalan, en la prevención, la formación y, muy principalmente, en relación con las funciones de inspección del cumplimiento de la normativa de seguridad y salud laborales.

Las mencionadas funciones de inspección que se ejercen a través del personal técnico de Osalan se desarrollan, entre otros ámbitos sectoriales en los cuales la Comunidad Autónoma del País Vasco ostenta competencias exclusivas, en el ámbito de las Administraciones Públicas Vascas.

Una vez establecido, en su correspondiente Reglamento, la regulación de las funciones del Sistema de Inspección de Seguridad y Salud Laborales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, procede ahora abordar el desarrollo reglamentario del procedimiento que ha de seguirse, para la imposición de medidas correctoras, en el ámbito de las Administraciones Públicas Vascas.

El artículo 10.4 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco (en adelante, EAPV) atribuye a nuestra Comunidad Autónoma competencia exclusiva en materia de régimen local y estatuto de los funcionarios del País Vasco. A su vez, el artículo 10.2 del EAPV le atribuye la competencia exclusiva de organización, régimen y funcionamiento de sus instituciones de autogobierno, y el artículo 10.6 del EAPV le atribuye competencia exclusiva por lo que respecta a las normas de procedimientos administrativos que se deriven de las especialidades del derecho sustantivo y de la organización propia del País Vasco. Finalmente, en cuanto la inspección se encuadra en el aspecto estrictamente ejecutivo de la legislación laboral, debe apelarse al artículo 12.2 del EAPV que atribuye a la Comunidad Autónoma la ejecución de la legislación del Estado en materia de legislación laboral.

La Disposición Final Tercera de la Ley 7/1993, de 21 de diciembre, insta al Gobierno a dictar las disposiciones necesarias para adaptar el procedimiento sancionador previsto en la legislación sobre infracciones y sanciones en el orden social al ámbito de las Administraciones Públicas Vascas.

La Ley 31/1995, de 10 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales, es el referente fundamental en lo relativo a la promoción de la mejora de las condiciones de trabajo y de protección de la salud y seguridad en el trabajo, resultando aplicable al personal al servicio de las Administraciones Públicas. Sobre la base del referido Sistema de Inspección de Seguridad y Salud Laborales, el presente Reglamento que se aprueba regula el procedimiento para la imposición de sanciones por infracciones en materia de prevención de riesgos laborales en el ámbito de las Administraciones Públicas Vascas.

Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 45.1 artikuluko hirugarren idatz-zatian aurreikusten denez, Administrazio Publikoen zerbitzuan jarduten duten zibilen harremanen eremuan arauak hausten dituztenek beren gain hartu behar dute erantzukizun hori, eta, eskumeneko agintariek emandako ebazpenaren bitartez, ez-betetzeei dagozkien neurri zuzentzaileak ezarriko zaizkie, horretarako ezarritako prozeduraren arabera.

Izan ere, administrazio-autozehapena arbuiatzen duen nortasun subjektiboko printzipioaren ondorioz, erregelamendu honen eraginpeko lan-arriskuen prebentzio-arloko portaera arau-hausleak zuzentzeko, Euskal Administrazio Publikoek neurri zuzentzaileak beteko dituzte, neurri zehatzaileak bete beharrean.

Euskal Administrazio Publiko guztiek osatzen dute Erregelamendu honen aplikazio-eremu subjektiboa, hau da, erkidegoko administrazioak, foru- eta toki-administrazioak, eta horien guztien mendeko erakunde publiko batzuek; sozietate publikoak, sektore publikoaren fundazioak eta nortasun juridiko propioa duten partzuergoak alde batera utzita. Gainera, azaroaren 6ko 2/2007 Legegintza Dekretuak onarturiko Euskadiko Ondarearen Legean aipaturiko erakunde publiko instituzional batzuk barne hartuta daude eremu horretan.

Beraz, deskribaturiko aplikazio-eremu subjektiboaren esparruan, erregelamendu honek Euskal Administrazio Publikoak eta horien mendeko zenbait erakunde publiko eraginpean hartzen dituela hartu behar da aintzat, langileen eta Administrazio horien arteko lotura (funtzionariala, estatutukoa edo lanekoa) edozein izanik ere. Hortaz, Erregelamendu honek langile publiko guztiak hartzen ditu eraginpean.

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Ikuskaritzak, lan-arriskuen prebentzioaren arloan, Euskal Administrazio Publikoen eremuan jardungo du, erregelamendu honek horretarako ezarritako prozedurari jarraiki, eta, lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia hausten duten portaerak atzematen baditu, dagokion errekerimendu-proposamena emango du, atzemandako ez-betetzeak edo irregulartasunak konpontzeko hartu beharreko neurriak barne.

Erregelamenduaren egiturari eta edukiari dagokienez, aipatzekoa da Xedapen Orokorrei buruzko I. kapituluan xedearen eta aplikazio-eremuaren erregulazioa jorratzen direla; II. kapitulua, aldez aurreko ikuskatze-jarduerari dagokiona, bi ataletan banatzen da: 1. atalak ikuskatze-jardueraren hasierari heltzen dio, eta 2.ak, berriz, ikuskatze-jardunaren garapenari. III. kapituluan neurri zuzentzaileak ezartzeko prozedura garatzen da.

La Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales prevé en el apartado tercero del artículo 45.1 que en el ámbito de las relaciones del personal civil al servicio de las Administraciones Públicas, las infracciones serán objeto de responsabilidades a través de la imposición, por resolución de la autoridad competente, de la realización de las medidas correctoras de los correspondientes incumplimientos, conforme al procedimiento que al efecto se establezca.

Efectivamente, como consecuencia del principio de identidad subjetiva que repudia la autosanción administrativa, la corrección de las conductas infractoras en materia de prevención de riesgos laborales por parte de las Administraciones Públicas Vascas afectadas por el presente Reglamento no va a realizarse mediante la adopción de medidas sancionadoras sino a través de la imposición de las llamadas medidas correctoras.

El ámbito de aplicación subjetivo del presente Reglamento son todas las Administraciones Públicas Vascas, entendiendo por tales tanto la autonómica como la foral y la local así como ciertas entidades públicas dependientes de todas ellas, excluyéndose las sociedades públicas, las fundaciones del sector público y los consorcios dotados de personalidad jurídica propia. Además, quedan incluidos también una serie de organismos públicos de naturaleza institucional referidos en la Ley del Patrimonio de Euskadi, aprobado por Decreto Legislativo 2/2007, de 6 de noviembre.

En el marco del ámbito de aplicación subjetivo descrito, se comprende por tanto que el presente Reglamento afecte a todas las Administraciones Públicas Vascas y ciertas entidades públicas dependientes, así como a determinados organismos públicos, con independencia del vínculo, funcionarial, estatutario o laboral que relaciona a las personas trabajadoras con las citadas Administraciones. Así pues, el presente Reglamento abarca a todas las personas empleadas públicas.

La citada Inspección de Seguridad y Salud Laborales actuará, en materia de prevención de riesgos laborales, de conformidad con el procedimiento que al efecto señala el presente Reglamento en el ámbito de las Administraciones Públicas Vascas, y cuando aprecie conductas infractoras de la normativa de prevención de riesgos laborales emitirá la correspondiente propuesta de requerimiento conteniendo las medidas a adoptar para subsanar los incumplimientos o irregularidades detectados.

En relación con la estructura y contenido del presente Reglamento cabe decir que del Capítulo I, dedicado a las Disposiciones Generales, destaca la regulación del objeto y el ámbito de aplicación; el Capítulo II, dedicado a la Actividad inspectora previa, se divide en dos Secciones: la Sección 1.ª aborda el Inicio de la actividad inspectora y la Sección 2.ª el Desarrollo de la actuación inspectora; el Capítulo III refiere propiamente procedimiento para la imposición de medidas correctoras.

Horren ondorioz, Aholku Batzorde Juridikoarekin adostuta eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren proposamenari jarraiki, lehendakariak onartu ondoren eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2008ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau:

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Erregelamendua onartzea.

Euskal Administrazio Publikoen eremuan lan-arriskuen prebentzio-arloko arauak ez betetzeagatiko neurri zuzentzaileak ezartzeko prozeduraren Erregelamendua onartu da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Erregelamenduan ezarritako prozedurak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren gobernu-organoak aipatzen ditu. Nolanahi ere, gainerako Euskal Administrazio Publikoen langile zibilak Administrazio horietako gobernu-organoen eraginpean daudela hartuko da aintzat.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko urtarrilaren 29an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.

2008KO URTARRILAREN 29KO
20/2008 DEKRETUAREN ERANSKINA

EUSKAL ADMINISTRAZIO
PUBLIKOEN EREMUKO
LAN ARRISKUEN PREBENTZIO ARLOKO EZ-
BETETZEENGATIKO NEURRI ZUZENTZAILEAK
EZARTZEKO PROZEDURAREN
ERREGELAMENDUA

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

Euskal Administrazio Publikoen eremuan lan-arriskuen prebentzio-arloan eginiko arau-hausteengatiko neurri zuzentzaileak ezartzeko prozedura arautuko du Erregelamendu honek.

2. artikulua.– Aplikazio-eremua.

1.– Erregelamendu honek arautuko du lan-arriskuen prebentzioari buruzko arauak hausten dituzten portaeren aurkako neurri zuzentzaileak ezartzeko prozedura, ez-betetzeetara egokitutako neurri zuzentzaileak ezar-

En su virtud, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, a propuesta del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, previa aprobación del Lehendakari y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 29 de enero de 2008,

DISPONGO:

Artículo único.– Aprobación del Reglamento.

Se aprueba el Reglamento del procedimiento para la imposición de medidas correctoras por incumplimientos en materia de prevención de riesgos laborales en el ámbito de las Administraciones Públicas Vascas.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Si bien el procedimiento establecido en el presente Reglamento hace referencias a los órganos de gobierno de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con respecto al personal civil de las restantes Administraciones Publicas Vascas, se entenderán referidas a los respectivos órganos de gobierno de estas Administraciones.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 29 de enero de 2008.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.

ANEXO AL DECRETO 20/2008,
DE 29 DE ENERO

REGLAMENTO DE PROCEDIMIENTO PARA LA
IMPOSICIÓN DE MEDIDAS CORRECTORAS POR
INCUMPLIMIENTOS EN MATERIA DE
PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES EN EL
ÁMBITO DE LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS
VASCAS

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.– Objeto.

Se regirá por el presente Reglamento el procedimiento para la imposición de medidas correctoras por infracciones en materia de prevención de riesgos laborales en el ámbito de las Administraciones Públicas Vascas.

Artículo 2.– Ámbito de aplicación.

1.– Se regirá por el presente Reglamento el procedimiento para la imposición de medidas correctoras frente a las conductas infractoras contra las normas sobre prevención de riesgos laborales que, en el ámbito

tzeko. Lan-arriskuen prebentzioari buruzko arau horiek Gizarte Arloko Arau-hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren II. Kapituluaren bigarren atalean bilduta daude.

2.– Erregelamendu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoari aplikatuko zaio Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko legearen 7. artikuluko 1., 2. eta 3. paragrafoetan aipatutakoaren arabera, baita EAEko Foru- eta Toki-arloko gainerako Administrazio Publikoei eta haien mendeko erakunde publiko guztiei ere. Azkenik, Euskadiko Ondarearen Legearen 1.1 artikuluko a) eta i) idatz-zatietan aipaturiko erakunde publikoei ere aplikatuko zaie.

3.– Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 3.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskal Administrazio Publikoen mendeko Polizien zentroak eta establezimenduak Erregelamendu honen aplikazio-eremutik kanpo geratuko dira, eta haien araudi espezifikoan ezarritakoa bete beharko dute, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Ikuskaritzak araudi horren eraginpean ez dauden gaietan eskumena duela aintzat hartuta.

4.– Prozedura hau ez zaie aplikatuko artikulu honen 1. idatz-zatian deskribaturiko erakundeen instalazioetan jarduten duten enpresa kontratistetako, obra edo zerbitzuen azpikontratistetako, edo edonolako enpresa emakidadunetako langileei dagokienez lan-arriskuen prebentzio-arloan sor daitezkeen gaiei, horiei ohiko prozedura aplikatuko baitzaie.

5.– Orobat, Erregelamendu hau Euskal Administrazio Publikoen organoei ez zaie aplikatuko baldin eta eraikuntza-obren sustatzaile gisa jarduten badute, eraikuntza-obren gutxieneko segurtasun- eta osasun-baldintzak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren arabera. Eraikuntza-obra horiek beren arau espezifikoen arabera arautuko dira.

II. KAPITULUA
ALDEZ AURREKO IKUSKATZE JARDUERA

1. ATALA
IKUSKATZE JARDUERAREN HASIERA

3. artikulua.– Prozedurari hasiera emateko modua.

Euskal Administrazio Publikoen eremuko lan-arriskuen prebentzio-arloko ez-betetzeengatiko neurri zuzentzaileak ezartzeko prozedurari betiere Laneko Segurtasun eta Osasunerako Ikuskaritzaren eskumeneko or-

de las Administraciones Públicas Vascas, se regulen en la sección segunda del Capítulo II del Real Decreto Legislativo, 5/2000 de 4 de agosto, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social, para la imposición de las medidas correctoras adecuadas a los correspondientes incumplimientos.

2.– El presente Reglamento será de aplicación a la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi en los términos señalados en los párrafos 1, 2 y 3 del artículo 7 de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, así como a las demás Administraciones Públicas Vascas Forales y Locales y a sus entes públicos dependientes de ellas. Será también de aplicación a los organismos públicos a que se refieren los apartados a) a i) del artículo 1.1 de la Ley del Patrimonio de Euskadi.

3.– De conformidad con lo dispuesto en el artículo 3.2 de la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales quedan excluidos del ámbito de aplicación del presente Reglamento los centros y establecimientos de los Cuerpos de Policía dependientes de las Administraciones Públicas Vascas y respecto de los mismos se estará a lo previsto en su normativa específica, sin perjuicio de la competencia de la Inspección de Seguridad y Salud Laborales en las materias no afectadas por la misma.

4.– El presente procedimiento no es de aplicación a las cuestiones de prevención de riesgos laborales que se susciten respecto del personal de las empresas contratistas, subcontratistas de obras o servicios o concesionarias de cualquier índole que realicen su actividad en instalaciones de las entidades descritas en el apartado 1 de este artículo, respecto de los cuales se aplicará el procedimiento ordinario.

5.– Igualmente no será de aplicación el presente Reglamento a los órganos de las Administraciones Públicas Vascas cuando actúen en la condición de promotor o promotora de obras de construcción, conforme al Real Decreto 1627/1997, de 24 de octubre, por el que se establecen disposiciones mínimas de seguridad y salud en las obras de construcción, que se regirán por sus normas específicas.

CAPÍTULO II
ACTIVIDAD INSPECTORA PREVIA

SECCIÓN 1.ª
INICIO DE LA ACTIVIDAD INSPECTORA

Artículo 3.– Forma de iniciación del procedimiento.

El procedimiento para la imposición de medidas correctoras por incumplimientos en materia de prevención de riesgos laborales en el ámbito de las Administraciones Públicas Vascas, se iniciará siempre de oficio por el

ganoak emango dio hasiera ofizioz, goragoko aginduei zein norberaren ekimenari jarraiki, langileen ordezkarien eskaerari erantzunez edo interesdunak dagokion salaketa aurkeztu ondoren.

4. artikulua.– Eskumeneko Ikuskaritza Organoa.

Ikuskaritza Burutzaren ardura duen ikuskatzaileak hasiera emango dio ikuskatze-jardunari.

5. artikulua.– Langileen ordezkariek eskatuta hastea.

EAEko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Ikuskaritzaren jarduna EAEko edozein Administrazio Publikotako langileen ordezkariek eskatuta hasten bada, Ikuskaritzaren jardun-eskabidearekin batera prebentzio-delegatuek gai horren inguruan egindako jardunen zerrenda aurkeztu beharko da dagokion administrazio-zentroaren eskumeneko organoan, baita, hala badagokio, dagokion Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordearen txostena aurkeztu ere.

6. artikulua.– Interesdunak salaketa aurkeztu ondoren hastea.

Ikuskatze-jarduna interesdunak eskatuta hasten bada, Ikuskaritza Burutzaren ardura duen ikuskatzaileak, jardunak hasi aurretik, salaketaren eraginpeko zentro edo instalazioko langileen ordezkariengana joko du, idazki bidez administrazio-zentroaren ardura duen organoari jakinaraz diezaioten horri buruzko jardunak izan ote diren, eta, hala badagokio, jardun horien nondik norakoen berri eman diezaioten. Ikuskaritza Burutzaren ardura duen ikuskatzaileak, txosten hori aztertu ondoren, esku-hartzeari buruzko erabakia hartuko du, eta, esku hartzeko premiarik ez dagoela erabakitzen badu, salatzaileari erabaki horren berri emango dio, horretarako arrazoiak emanez.

2. ATALA
IKUSKATZE JARDUNAREN GARAPENA

7. artikulua.– Bisitaldia.

Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko araudia betetzen ote den egiaztatzeko administrazio-zentroetara eginiko bisitaldietan, ikuskatzaile jarduleak Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 40.2 artikuluan ezarritakoaren arabera jardungo du, eta, betiere horrek bere jardunaren arrakastari ez diola kalterik egingo uste badu, Administrazioaren ordezkariak, Segurtasun eta Osasun Batzordeak edo prebentzio-delegatuak —edo, delegaturik ezean, langileen lege-ordezkariek— ere parte har dezakete bisitaldi horretan.

órgano competente de la Inspección de Seguridad y Salud Laborales, bien por orden superior, bien por propia iniciativa, a petición de la representación del personal o mediante denuncia de persona interesada.

Artículo 4.– Órgano de la Inspección competente.

El órgano competente para iniciar la actuación inspectora será la inspectora o el inspector responsable de la Jefatura de la Inspección.

Artículo 5.– Iniciación a petición de la representación del personal.

Si la actuación de la Inspección Vasca de Seguridad y Salud Laborales hubiese sido instada por la representación del personal de cualesquiera de las Administraciones Públicas Vascas, a la petición de actuación de la Inspección deberán acompañarse relación de actuaciones realizadas sobre la cuestión por las y/o los delegados de prevención ante el órgano responsable del centro administrativo de que se trate, así como, en su caso, informe del Comité de Seguridad y Salud Laboral correspondiente.

Artículo 6.– Iniciación mediante denuncia de persona interesada.

En el supuesto de que la actuación inspectora sea instada por persona interesada, la inspectora o inspector responsable de la Jefatura de la Inspección previamente al inicio de actuaciones, se dirigirá a la representación del personal del centro o instalación objeto de la denuncia para que por escrito informe sobre la existencia de actuaciones ante el órgano responsable del centro administrativo de que se trate y, en su caso, del contenido de las mismas. La inspectora o el inspector responsable de la Jefatura de la Inspección, a la vista de dicho informe decidirá sobre su intervención, comunicando su decisión motivada a la o al denunciante si decidiera la necesidad de no intervención.

SECCIÓN 2.ª
DESARROLLO DE LA ACTUACIÓN INSPECTORA

Artículo 7.– Visita.

Durante las visitas a los centros administrativos para la comprobación del cumplimiento de la normativa sobre prevención de riesgos laborales, la o el inspector actuante procederá conforme a lo dispuesto en el artículo 40.2 de la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales, haciéndose acompañar, si considera que ello no perjudica al éxito de su actuación, por la o el representante de la Administración, por el Comité de Seguridad y Salud o por la o el delegado de prevención o en su ausencia, por las y los representantes legales del personal.

III. KAPITULUA
NEURRI ZUZENTZAILEAK EZARTZEKO PROZEDURA

8. artikulua.– Errekerimendu-proposamena.

Egiaztapenak egin ondoren ikuskatzaile jarduleak uste badu lan-arriskuen prebentzio-araudia aplikatzerakoan ez-betetzeak edo irregulartasunak gertatu direla, Errekerimendu Proposamena emango du arlo horretan planteaturiko gaien inguruan. Honako hauek bilduko dira proposamen horretan:

a) Administrazioaren, eta, hala badagokio, irregulartasunak atzeman diren administrazio-unitatearen identifikazioa.

b) Atzemandako irregulartasunak.

c) Irregulartasun horiek konpontzeko hartu beharreko neurriak.

d) Neurri horiek betearazteko epea.

9. artikulua.– Errekerimendu-proposamena komunikatzea.

Ikuskatzaile jarduleak ikuskatutako administrazio-unitateari, jarduna agindu duen organoari eta langileen ordezkariei helaraziko die errekerimendu-proposamena.

10. artikulua.– Alegazioen tramitea eta behin betiko errekerimendua.

1.– Administrazio-unitateak eta langileen ordezkariek alegazioak aurkez ditzakete hamabost egun balioduneko epean errekerimendu-proposamena jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita.

2.– Ikuskatzearen eraginpeko administrazio-unitateak edo langileen ordezkariek alegaziorik aurkezten ez badute aurreko idatz-zatian aipatutako epean, prebentzio-arloko irregulartasunen inguruan eta irregulartasun horiek konpontzeko hartutako neurrien inguruan desadostasunik ez dutelako, errekerimendu-proposamena behin betikoa izango da. Kasu horietan, administrazio-unitateak hartu beharreko neurriak abian jartzeko beharrezko tramiteak egingo ditu.

Konpontzea egin ostean, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Ikuskaritza jarduleari emango zaio horren berri.

3.– Errekerimendu-proposamenari buruzko desadostasunik sortuz gero, ikuskatutako administrazio-unitatearen burutzak edo langileen ordezkariek alegazioak aurkezten badituzte hamabost egun balioduneko epean, ikuskatzaile jarduleak, aurkeztutako alegazioak eta beharrezkotzat joko dituen txosten teknikoak aztertu ondoren, hartu beharreko neurrien eta neurri horiek betearazteko epearen inguruko behin betiko errekerimendua egingo du.

CAPÍTULO III
PROCEDIMIENTO PARA LA IMPOSICIÓN DE MEDIDAS CORRECTORAS

Artículo 8.– Propuesta de requerimiento.

Concluidas las comprobaciones, si como resultado de las mismas, la o el inspector actuante considerara que existen incumplimientos o irregularidades en la aplicación de la normativa de prevención de riesgos laborales emitirá una Propuesta de Requerimiento sobre las cuestiones planteadas en dicha materia, en el que se recogerán:

a) Identificación de la Administración y, en su caso, unidad administrativa donde se hayan detectado las irregularidades.

b) Las irregularidades detectadas.

c) Las medidas a adoptar para subsanarlas.

d) El plazo que considera necesario para la ejecución de las mismas.

Artículo 9.– Comunicación de la Propuesta de requerimiento.

La o el inspector actuante dará traslado de la propuesta de requerimiento establecida en el artículo anterior a la unidad administrativa inspeccionada, al órgano que ordenó la actuación y a la representación del personal.

Artículo 10.– Trámite de alegaciones y requerimiento definitivo.

1.– Tanto la unidad administrativa como la representación del personal podrán formular alegaciones en el plazo de quince días hábiles desde la notificación de la propuesta de requerimiento.

2.– Si la unidad administrativa sujeta a inspección o la representación del personal no formulasen alegaciones en el plazo señalado en el apartado anterior, por no mantener discrepancia sobre la existencia de las anomalías en materia de prevención, ni sobre las medidas precisas para la subsanación de las mismas, la propuesta de requerimiento adquirirá automáticamente carácter definitivo. En estos casos, la unidad administrativa procederá a efectuar los trámites necesarios para que las medidas requeridas se lleven a cabo.

Realizada la subsanación, se dará cuenta a la Inspección de Seguridad y Salud laborales actuante.

3.– En caso de discrepancias con la propuesta de requerimiento, si la jefatura de la unidad administrativa inspeccionada o la representación del personal formularan alegaciones en el referido plazo de quince días hábiles, la o el inspector actuante, a la vista de las alegaciones formuladas y de los informes técnicos que estime necesarios, podrá efectuar requerimiento definitivo sobre las medidas a adoptar y el plazo de ejecución de las mismas.

4.– Aurreko idatz-zatian aipaturiko behin betiko errekerimendua ikuskatutako administrazio-unitatearen burutzari eta langileen ordezkariei helaraziko zaie. Komunikazio hori ez da beharrezkoa izango baldin eta errekerimendua behin betiko bihurtu bada hamabost eguneko epea amaituta alegaziorik aurkeztu ez delako.

11. artikulua.– Behin betiko errekerimendua ez betetzea.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra baldin bada, honako jardun hauek egingo dira:

a) Behin betiko errekerimendua amaituta errekerimendu horretan bilduriko neurriak hartu ez badira, ikuskatzaile jarduleak errekerimendu hori eta tramitatutako espedienteak helaraziko dizkio Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko dagokion Lurralde Ordezkaritzari, lurralde-organoak badira, edo Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzari, baldin eta Euskal Administrazio Publikoen edo haien Erakunde autonomoen organo zentralak badira.

b) Lurralde Ordezkaritzak edo Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzak, egokitzat jotzen dituen txostenak bildu eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzari jakinarazi ondoren, espedientea eta proposamen berreslea edo indargabetzailea helaraziko dizkio Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuordetzari, hark, egokitzat jotzen badu, ikuskatutako organoaren araberako eskumeneko sailaren sailburuordetzari helaraz diezazkion. Sailburuordetza horrek, hartutako neurriekin ados baldin badago, neurri horiek abian jartzeko beharrezko tramiteak egingo ditu, edo bestela, ados ez badago, dagokion sailburuari helaraziko dio espedientea, hark Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari desadostasun horren berri eman diezaion, baita —azken erabakia hartzeko— jardunak Jaurlaritzaren Kontseiluari helarazi izana jakinaraz diezaion ere.

c) Interesdunek dagokion administrazioarekiko auzietarako errekurtsoa jarri ahal izango dute Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako azken erabakiaren aurka, edo Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuordetzak eginiko errekerimendua guztiz edo partzialki baliogabetzen bada, aurreko idatz-zatian aipatutako txostenak oinarritzat hartuta.

2.– Beste Euskal Administrazio Publiko batzuk edo erregelamendu honen 2.2 artikuluan aipaturiko aplikazio-eremuan bilduriko beste erakunde batzuk badira, ikuskatzaile jardulearen errekerimenduak horietako bakoitzaren gobernu- eta ordezkaritza-organoari helaraziko zaizkio, organo horrek eskumeneko organoari helaraz diezazkion, erakunde bakoitzaren barneko antolamendu- eta egitura-arauen arabera.

4.– El requerimiento definitivo a que hace referencia el apartado anterior, se comunicará a la jefatura de la unidad administrativa inspeccionada y a la representación del personal. Dicha comunicación no será necesaria cuando el requerimiento haya devenido en definitivo por el transcurso del plazo de quince días sin haber formulado alegaciones.

Artículo 11.– Incumplimiento del requerimiento definitivo.

1.– En el caso de que se trate de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, se realizarán las actuaciones siguientes:

a) Transcurrido el plazo fijado en el requerimiento definitivo sin que se hayan adoptado las medidas recogidas en el mismo, la o el inspector actuante elevará dicho requerimiento con el expediente tramitado a la Delegación Territorial del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social correspondiente, si se trata de órganos territoriales, o a la Dirección de Trabajo y Seguridad Social del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social si se trata de órganos centrales de las Administraciones Públicas Vascas o de sus Organismos autónomos.

b) La Delegación Territorial o la Dirección de Trabajo y Seguridad Social, previo los informes que estime pertinentes recabar y dando conocimiento a la Dirección de Función Pública, elevará el expediente con su propuesta, confirmatoria o revocatoria, a la Viceconsejería de Trabajo y Seguridad Social al objeto de que ésta, cuando proceda, dé traslado del mismo a la Viceconsejería del Departamento competente por razón del órgano inspeccionado, quien, en caso de conformidad con las medidas requeridas, procederá a efectuar los trámites oportunos para que se lleven a cabo o, en caso de discrepancia, elevará el expediente a la o al Consejero respectivo que comunicará a la o al Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, junto con dicha discrepancia, la elevación de las actuaciones al Consejo de Gobierno para la decisión final.

c) Contra la decisión final adoptada por parte del Consejo de Gobierno, como igualmente cuando se revoque total o parcialmente el requerimiento realizado por parte de la Viceconsejería de Trabajo y Seguridad Social, sobre la base de los informes señalados en el apartado anterior, procederá la interposición por las personas interesadas del correspondiente recurso contencioso-administrativo.

2.– En el caso de que se trate de otras Administraciones Públicas Vascas o entidades integradas en el ámbito de aplicación señalado en el artículo 2.2 del presente Reglamento, los requerimientos de la inspectora o del inspector actuante se dirigirán al órgano de gobierno y representación de cada uno de ellas, a los efectos de que el mismo dé traslado al órgano competente según las normas de organización y estructura internas de cada una de las citadas entidades.